2020/09/28

<< LEHEN SEGA-SAIL LEHIAKETA>>

*ZENBAIT ZEHAZTAPEN **AURTENGO** SAIORAKO*

TOKIA eta DATA: Hernaniko Jauregin, urriaren 25ean, eguerdian.
SEGALARIEN LANA: Gizonezkoek 1000m^2 eta emakumezkoek 400m^2 ebaki beharko dituzte.

1. Segalari bakoitzak, gehienera, hiruna sega eraman ditzake.

2. Segalariak lagun bakarra eraman dezake aldamenean; harraizteko nahiz laguntzeko.

3. Segalari bakoitzak bina biltzaile eraman beharko ditu.

4. Biltzaileen egitekoa: Segalariak maila ebaki ahala, biltzaileek agerian utzi behar dute ebaki den maila bera. Honela, segalariak ebakitako maila ikusi orduko epaituko dute epaileek.

5. Epaileek ebakitako maila momentuan epaituko dutenez, mailan ager daitezken akats edo hutsegiteak zuzentzeko aginduko dio segalariari. Betiere, epaileak zehaztasunez adieraziko dio segalariari non egin duen akatsa. Honela, segalariak ziur jakingo du zer zuzendu behar duen, gaizki ulertzerik gerta ez dadin. Adierazteko spray bidez adieraztea aukeretako bat izan daiteke (epailearentzat nahiz segalariarentzat abantaila lekarke).

6. Segalariak, epaileak hala aginduz gero, maila bukatu eta hurrengoan hastera doan bitartean segaz (eta ez eskuz) zuzendu beharko ditu ebaki berri duen mailan egindako akatsak. Epailearen esana betetzen ez badu, segalariak ezingo du hurrengo maila ebakitzen hasi.

7. Epaileak mailaz maila jarraituko dio segalariari eta maila bukatutakoan ez badio garaiz adierazten zerbait zuzendu behar duela (eta zehazki non zuzendu behar duen), segalariak bere lanean aurrera jarrai dezake.

8. Biltzaileek, segalariaren atzean doazela, honekiko 3m linealeko distantziari eutsi beharko diote, bi aldeetako segurtasuna bermatzeko. Horrez gain, segalari bakoitzarekin ariko diren biltzaileak ez dira segalariaren taldekoak izango, kontrako taldekoak baizik.

9. Segalariak sega uzterakoan (dela harraizteko, dela aldatzeko edota lana bukatu duelako) ez du bere atzealdera botako. Kasu honetan, segalariak bere aurrean, aldamenean edo zuzenean harraiztaileari emanez utziko du sega.

10. Segalariak lanak bukatu eta epaileak txistua jo dezan, segalariak bere azken maila bukatu ondoren maila horren beraren hasierara joan beharko du. Honela, segalariak ebakitako azken maila txukun ebakita dagoela ikusi beharko dute epaileek eta segalariak azken maila horretan egin dituen akatsak zuzendu eta maila hasierara iristen denean joko da amaiera-txistua.

11. Baldintza hauek guztiak betez, bere belar sailak aurrena bukatzen dituen segalaria izango da saioko irabazle eta gauza bera ondorengo postuekin ere.

12. Epaileak aldatu egingo dira saioaren erdi-lanetara (gutxi gorabehera) iritsitakoan, saio osoan segalariak epaile bera izan ez dezan.